

- ❖ Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Erabiliko ditugun funtsezko baliabideak baliabide intelektualak, giza baliabideak eta baliabide fisikoak izango dira.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak, kontratatuko dugun informatikoa eta gure abileziak izango dira. Beste alde, erabiliko ditugun baliabide fisikoak telefonoa, ordenagailua, bakoitzaren etxea,... izango dira.

Gure zerbitzuak funtziona dezan hurrengo elementuak garrantzi handikoak izango dira:

- Web on bat, itxura ona duena eta ulertzeko erraza dena.
- Publizitate ona, sare sozialen bidez.
- Arrazoizko prezioa eskaintzea gure bezeroei.
- Gure bezeroekin harreman handia lortutakoan sare sozialak alde batera ez uztea.
- Kontratatuko dugun informatikoaren funtzioa, hau da, arazoak konpontzea oso garrantzitsua izango da zeren azkenean laguntza honekin, itxura oneko web bat lortuko dugu eta horrek bezeroak erakartzen lagunduko du eta bezeroen arteko ahoz ahozkoa ona izatea ahalbidetuko du batik bat.